

Lea-Artibaiko gazte diagnostiko parte-hartzailea abian da: *Katuk miñe jatzu?*

Miiiiiauuuuu desberdinak ikusi dituzu kaleetan? Sare sozialetan *Katuk miñe jatzu?* batek lagun eskaera bidali dizu? Ez dakizu zer den hau? Lea Artibain aurrera eramango den *Katuk miñe jatzu?* gazte diagnostiko parte-hartzailearen egitasmoa da, eta martxan da dagoeneko.

Zertaz ari gara?

Lea-Artibaiko Amankomunazgoak 2013-2014 ikasturtean eskualdeko gazteen egoera aztertzeke diagnostikoa burutzea du erronka, eta zeregin hori modu parte-hartzailean eta gazteekin hartu emanean egitea du helburu.

Gazteen errealitatera hurbildu nahi dute eskualdeko Udalek. Ibilbide horretan, gazteek eurek erabaki eta landuko dituzte gazte alorrean ezarri beharreko ildo orokorrak. Lan hori gazte horien behar, interes eta arazoetatik hasita garatzen joango da.

Parte-hartzeari garrantzi berezia eskaini nahi zaio prozesu honetan. Eragile sozial, politiko eta teknikoak ahaztu gabe, gazteak jarriko dira proiektuaren erdigunean, gazteak inguruko errealitatean eta erabaki publikoetan parte har dezaten ahalbidetuz.

Katuk miñe jatzu? egitasmoaren bidez, gazteen errealitatea ezagutu nahi da: etorkizuneko ametsak, gaur egungo egoeraren kritikak, Udalen inguruan dituzten pertzepzioak,.. gazteen arteko sareak indartuz.

Prozesuaren nondik norakoak

Informazioa biltzeko bide ugari erabiliko dira. 14-30 urte bitarteko gazteen iritziak eztabaida tailer irekien bidez, inkestak zabalduz edo lehiaketa formatuan jasoko dira, besteak beste.

Sare sozial eta kartelen bidez egingo dira herri bakoitzeko deialdiak eta hitzorduak. Adin, jatorri zein ideologia anitzeko gazteak aktiboki parte hartzeko deia luzatu dute.

Gaurdanik uztaile arte iraungo du diagnostiko faseak eta jasotako ondorioekin gazte politikan eragitea bultzatu nahi du prozesuak.

Gogoan izateko zita batzuk

- Mezu labur lehiaketa: apirilak 15etik maiatzak 15era
- Eztabaida tailerrak: herrietan maiatza eta ekaina
- Ondorioak eta gazte diagnostikoa: uztaila

Herri parte hartzaileak

Lea Artibaiko Amankomunazgoak jarri du martxan prozesua. Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa eta Ziortza-Bolibarreko Udalek sustatutako proiektua da.



Prozesuaren kudeatzaileak eta harremanetarako bidea:

Bizkaiko Urtxintxa Eskola
Parte-hartze arloa
Aiora Azagirre Garitagoitia
katukmiñejatzu@gmail.com
Tel.944320445